



BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA
ANTOLAKETA eta JARDUERAREN ARAUDIA
AJA



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

AURKIBIDEA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

ATARIKO TITULUA - XEDAPEN OROKORRAK	2
I. TITULUA - ESKOLAREN ANTOLAKETA	2
I. KAPITULUA - TALDEKO AGINTEORGANOAK	2
1. Atala - Batzar Nagusia	2
2. Atala - Zuzendaritza Batzordea	4
3. Atala - Irakasleen Klaustroa	8
II. KAPITULUA - PERTSONA BAKARREKO AGINTE ORGANOAK ETA KARGUAK	10
1. Atala - Zuzendaria	10
2. Atala - Administrazio Idazkaria	13
III. KAPITULUA - IRAKASKUNTZA KOORDINTZEKO ORGANOAK	13
1. atala - Departamentuak	13
II. TITULUA - HEZKUNTZA KOMUNITATEA	14
I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK	14
II. KAPITULUA - IRAKASLEAK	15
1. Atala - Xedapen orokorrak	15
2. Atala - Irakasleen eskubide eta betebeharrak	15
3. Atala - Tutore kargua	17
III. KAPITULUA - BIZIKIDETZA-ARAUAK	17
1. Atala - XEDAPEN OROKORRAK	17
2. Atala - Ikasleen eskubideak eta betebeharrak	18
3. Atala - Ikasleen arau hausteak	19
4. Atala - Ikasleen arau-hausteak zuzentzeko neurriak	23
5. Atala - Jokabide desegokiak zuzentzeko neurri alternatiboak	23
6. Atala - Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozedurak	25
III. TITULUA - ESKOLA KUDEATZEKO ETA EBALUATZEKO TRESNAK	28
I. KAPITULUA - IKASTURTEKO PLANA	28
II. KAPITULUA - IKASTURTEKO MEMORIA	28
IV. TITULUA - ESKOLAKO INSTALAZIOEN ETA MATERIALAREN ERABILERA	29
V. TITULUA - MATRIKULATZEKO ARAUBIDEA	29
VI. TITULUA - ESKOLAN BAJA EMATEA	32
VII. TITULUA - ERREKLAMAZIOAK	33
I. KAPITULUA - KALIFIKAZIOEN ERREKLAMAZIOA	33
II. KAPITULUA - ERREKLAMAZIOA ZUZENDARITZA BATZORDEARI	34
VIII. TITULUA - ESKOLAKO TRAMITEAK ETA KOMUNIKAZIO-KANALAK	34
I. KAPITULUA - INIKA PLATAFORMA	34
II. KAPITULUA - IDAZKARITZA	34
IX. TITULUA - AZKEN XEDAPENAK	34
X. TITULUA - ERANSKINAK	35
I. Eranskina: Ikaslea irteera joateko familiaren baimena	36
II. Eranskina: Lanera huts egitearen jakinarazpena	37
III. Eranskina: Prozedura zuzentzailea bertan behera uztea	38
IV. Eranskina: Ikaslearen falta larria edo oso larriagatik prozedura zuzentzailea hastearen jakinarazpena	39
V. Eranskina: Ikaslearen entzunaldi izapidetaren akta	40
VI. Eranskina: Ikasleari neurri zuzentzailearen jakinarazpena	41
VII. Eranskina: Erreklamazioa Zuzendaritza Batzordeari	42
VIII. Eranskina: Neurri zuzentzailea berrikusteko eskabidea	43
IX. Eranskina: Azken kalifikazioaren erreklamazioa Departamentuari	44



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

ATARIKO TITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

BIZKARGI Musika eta Dantza Eskola Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baimendutako ikastetxea da, alde batetik, musika eta dantza ez-arautuan prestakuntza praktikoa eskaintzeko eta, bestetik, ikasketa profesionalak egin nahi dituzten bokazio eta gaitasun bereziko ikasleei orientazioa eta prestakuntza emateko.

1. artikulua. Antolaketa eta Jarduera Araudiaren aplikazio eremua.

Araudi honen aplikazio eremua BIZKARGI Musika eta Dantza Eskola eta Eskolara atxikitako pertsona guztiak, bertan dauden bitartean eta eskolaz kanpoko jardueretan edo jarduera osagarrietan parte hartzen badute eta Eskolako kide badira.

2. artikulua. Antolaketa eta Jarduera Araudiaren helburua.

Eskolaren Antolaketa eta Jarduera Araudia Eskolaren antolaketa eta funtzionamenduaren alderdiak arautzeko tresna bat da. Araudi honen helburua Eskolan bizikidetzat, antolaketa eta partaidetzarako arauak ezartzea da. Eguneroko eskola bizitzat arautu behar du, eta Eskolaren jardueraren helburuak betetzen direla eta hezkuntza komunitateko kideek elkar errespetatzen dutela bermatu behar du.

Araudi hau, besteak beste, honako araudi hauetan oinarritzen da:

1. [Maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretua](#), Euskal Autonomia Erkidegoko musika eta dantza-eskolena.
2. [Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretua](#), Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen.
3. [BIZKARGI Musika eta Dantza Eskola Elkartearen Estatutuak](#), Elkartearen funtzionamendua eta antolamendua arautzen dutenak: 1. kapituluak, Elkartearen izena, helbidea, helburuak, lurralde eremua, iraupena eta izaera; 2. kapituluak, Gobernu eta Administrazio organoak; 3. kapituluak, elkartekideak onartzeko baldintzak eta prozedurak; 4. kapituluak, ondarea eta aurrekontu araubidea; 5. kapituluak, estatutuak aldatzea; eta 6. kapituluak, Elkartea desagitea eta gizarte ondarea aplikatzea.

I. TITULUA - ESKOLAREN ANTOLAKETA

I. KAPITULUA - TALDEKO AGINTE ORGANOA

1. ATALA - BATZAR NAGUSIA

3. artikulua. Batzar Nagusiaren ezaugarriak eta osaera.

- a) Batzar Nagusia Bizkargi Musika eta Dantza Eskola Elkarteko Organo Gorena da eta elkartekide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira elkartekideen nahiak.

Ondorengo baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak izan daitezke elkarteko elkartekide:



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

1. Pertsona fisikoak: Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea.
2. Pertsona juridikoak: Eskumena duen organoak bere baitan hartutako erabaki baliodunaren kopia aurkeztu behar dute, eta bertan adieraziko dira bai elkartzeko borondatea, bai pertsona juridikoaren izenean arituko denaren izendapena.
3. Boluntarioak: beren jarduna borondatez eta eskuzabaltasunez eskaintzen duten pertsonak, edo lankidetzat pertsonala eskuzabaltasunez eta iraunkorki eskaintzen dutenak.

4. artikulua. Batzar Nagusiaren bilkurak eta erabakien baliozkotasuna.

- a) Batzar Nagusiak ezohiko eta ohiko bilkurak egingo ditu.
- b) Batzar Nagusiak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura, artikuluko honetako h) idatz-zatiko 1., 2. eta 3. puntuetan zehaztutako erabakiak hartze aldera.
- c) Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota elkartekideen % 51k eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolanahi ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da:
 1. Estatutuak aldatzeko.
 2. Elkartea desagiteko.
- d) Batzar Nagusiak, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten elkartekideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten elkartekideen kopurua edozein dela ere.
- e) Batzar Nagusiaren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuak baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Dena den, bertaratutakoen edo ordezkatuak gehiengo osoa beharko da (erdia + 1), honako erabaki hauek hartzeko:
 1. Elkartea desagitea.
 2. Estatutuak aldatzea.
 3. Ondasunak erabili edo besterentzea.
 4. Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.
- f) Elkartekideek edozein elkartekideren utzi dezakete beren ordezkaritza, Batzar Orokorrera joateari dagokionez. Ordezkaritza hori emateko baimena idatzirik egin beharko da, eta batzordeko idazkariak saioa hasi aurretik eduki beharko du. Elkartearen egoitza dagoen herritik kanpo bizi diren elkartekideek ordezkaritza beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezake.
- g) Elkartekide bakoitzak bost elkartekide ordezkatu ahal izango ditu, gehienez ere.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

5. artikulua. Batzar Nagusiaren ahalmenak.

Batzar Nagusiaren ahalmenak dira:

1. Elkartearen jarduera plan orokorra onartzea.
2. Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
3. Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
4. Estatutuak aldatzea.
5. Elkarateak desagitea.
6. Presidentetza, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
7. Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
8. Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
9. Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komeni bada.
10. Elkartekideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
11. Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

2. ATALA - ZUZENDARITZA BATZORDEA

6. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen ezaugarriak eta osaera.

- a) Zuzendaritza Batzordea da Batzar Nagusiaren xedapen eta zuzentarauei jarraikiz elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa.
- b) Elkartekideek baino ezingo dute osatu ordezkartza-organoa. Zuzendaritza Batzordea osatuko dutenak honakoak izango dira: Presidentetza, Presidenteordetza, Idazkaritza, Diruzaintza eta 3 batzordekide: Eskolako zuzendaria, irakasleen klaustroko irakasle bat eta Udaleko Kulturako zinegotzia.
- c) Pertsona fisikoek zein pertsona juridikoen ordezkariak baldintza hauek bete beharko dituzte Zuzendaritza Batzordeko kideak izateko:
 1. Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
 2. Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
 3. Erakundeko elkartekidea izatea.
- d) Zuzendaritza Batzordeko kideek konpromisoa hartuko dute Batzordean dauden bitartean eskura ditzaketen informazioak eta dokumentuak isilpean gordetzeko, eta konfidentzialtasun konpromisoaren dokumentua sinatuko dute nahitaez.

7. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen bilkurak eta erabakien baliozkotasuna.

- a) Batzordearen bilkurak Presidenteak edo, hala badagokio, Presidenteordeak erabakitzen duen guztietan egingo dira, bere ekimenez edo edozein elkartekidek eskatuta. Presidenteak



BIZKARGI Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

izango da buru, eta, hori ez badago, Presidenteordea, eta, biak ez badaude, batzordekiderik zaharrena.

- b) Batzordearen bilkurak kide guztiak bertaratu daitezkeen orduan eta egunean egingo dira. Bilkuraren deialdia Presidenteak bidaliko die batzordekideei. Deialdiarekin batera, bilkuraren gai zerrenda, eztabaidatu beharreko dokumentuak. Kideek bilkura egin baino astebete lehenago jasoko dituzte agiri horiek guztiak.
- c) Ezohiko bilkurak deitu ahal izango dira, gai batzuk premia aztertu behar badira, betiere 48 ordu lehenago deitzen badira.
- d) Batzordea gutxienez hiru hilean behin bilduko da, baita Eskolaren jardueren garapen egokiak eskatzen duen bakoitzean ere.
- e) Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilkura horietara 2 aldiz jarraian, edo, tarteka 4 aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.
- f) Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon beharko du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, presidentetzaren kalitateko botoa izango da erabakiko duena
- g) Idazkariak bilkuren akta egingo du.

8. artikulua. Zuzendaritza Batzordeko kargudunen betekizunak.

Zuzendaritza Batzordeko kide izateko ezinbesteko betekizunak honako hauek dira:

- a) Adinez nagusia izatea, eskubide zibil guztiak erabiltzea eta indarreko legerian ezarritako bateraezintasun arrazoietan sartuta ez egotea.
- b) Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatzea.
- c) Elkartekide izatea.

9. artikulua. Zuzendaritza Batzordeko karguen iraupena eta kargu-uztea.

- a) Batzar Nagusiak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak. Kargu horiek 4 urterako izendatuko dira Batzordeak berariaz baliogabetu ezean. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.
- b) Zuzendaritza Batzordeko kideek beren kargua utziko dute honelakorik gertatuz gero:
 - 1. Agintaldia bukatzen denean.
 - 2. Dimititzen dutenean.
 - 3. Elkartekide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
 - 4. Artikulu honetako a) idatz-zatia aplikatuz, Batzar Nagusiak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
 - 5. Hiltzen direnean.



BIZKARGI **Musika eta Dantza Eskola**

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

- c) Baldin eta kargua uzteko arrazoia 1. idatz-zatian agertzen dena bada, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar nagusia egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.
- d) Arrazoia 2., 3., 4. eta 5. idatz-zatietan agertzen dena bada, berriz, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Nagusiak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu-izendapenak egingo ditu.
- e) Organo honen osieran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkarteen Erregistroari.

10. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak.

Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak dira:

- a) Elkarteen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Nagusiaren jarraibideekin bat etorritik eta haren kontrolpean.
- b) Elkarrekin aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea. (Urteko Plana)
- c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Nagusiari aurkeztea, hark onar ditzan.
- d) Batzar Nagusiaren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.
- e) Elkartekideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharrezko neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere elkarteen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorritik.
- g) Kuotak onartzea, Batzar Nagusiak ahalmen hori Zuzendaritza Batzordearen esku utzi baitu.
- h) Eskolako Hezkuntza Proiektua onartzea.
- i) Eskolaren Antolakuntza eta Jarduera Araudia aldatzea, zabaltzea edo berrikustea onartzea.
- j) Eskola egutegia onartzea.
- k) Eskolaren Urteko Plana onartzea.
- l) Eskolaren Urteko Plana onartu ondoren programatutako jarduerak onartzea. (**I. Eranskina**)
- m) Eskolaren Urteko Memoria egitea Batzar Nagusiari aurkezteko, onar dezan.
- n) Eskolako Zuzendaritzak proposatutako irakasleen kontratazioa onartzea.
- o) Eskolako hezkuntza komunitateko kideek egindako erreklamazioak ebaztea.
- p) Elkartekideen proposamenei edo iradokizunei erantzutea, eta horretarako beharrezko neurriak hartzea.
- q) Erakunde ofizialekin beharrezko harremanak izatea, Elkarteen helburuak sustatzeko.
- r) Eskolaren jardura plana ezartzea, Azkoitiko Udalak eskuordetutako eginkizuna betetzeko.
- s) Batzar Nagusiak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

11. artikulua. Presidentetza eta ahalmenak.

Batzordearen legezko ordezkaritza bere gain hartzen du, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak hartutako erabakiak gauzatuko ditu. Bi organo horietako presidentea izango da, eta eskumen hauek izango ditu:

- a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar nagusiaren bilkura-deiak egin, bilkurak bukatutzat eman, bilkuretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.
- b) Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- c) Baliotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- e) Batzar Nagusiak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

12. artikulua. Presidenteordetza.

Presidenteordeak Presidenteari lagunduko dio eta, aldi batez bere kargua bete ezin badu, ordezkatu egingo du. Halaber, Presidenteak berariaz eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak izango ditu.

13. artikulua. Idazkaritza.

Idazkariari dagokio, zehazki, Akta Liburua zaintzea eta idaztea. Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden lege-xedapenak betetzen direla zainduko du, erakundearen dokumentazio ofiziala zainduz.

14. artikulua. Diruzaintza.

Diruzainak egindako diru sarreren eta ordainketen berri emango du, eta diru sarreren eta gastuen urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria formalizatuko ditu. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko zaizkio, eta hark Batzar Nagusiari, hala badagokio, onar ditzan.

15. artikulua. Batzordekideak.

Batzordekideek beren karguei datxekien funtzioak izango dituzte, Zuzendaritza Batzordeko kideak diren aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak eskatzen dizkiena ere.

16. artikulua. Zuzendaritza Batzordea aldatzeko hauteskunde prozesuaren antolakuntza.

Zuzendaritza Batzordeak, Eskolako Zuzendaritza Taldearekin batera, ikasturteko bigarren hiruhilekoan hasiko du hauteskunde prozesua, eta jarraian zehazten den moduan, antolatuko du prozesu hori:

- a) Hauteskunde egutegia finkatu.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

- b) Hauteskunde prozesuaren garapena antolatu.
- c) Hautagaiak hautatzeko hautesle-errola kide guztiei helarazi.
- d) Hautatutako hautagaien zerrenda Eskolara ekarriko da.
- e) Batzar Nagusiaren bilkurarako deia egin.

17. artikulua. Zuzendaritza Batzordeko karguen izendapena eta karguez jabetzea.

Batzordeko karguen izendapena eta karguez jabetzea honela egingo da:

- a) Batzar Nagusiaren bilkuran Zuzendaritza Batzordeko kargu berriak hautatu eta izendatuko dira.
- b) Izendapenaren ondoren, hautagaiak karguak hartuko dituzte.
- c) Zerrendako gainerako hautagaiak erreserban geratuko dira Zuzendaritza Batzordearen lau urteko agintaldian hainbat arrazoiengatik sor daitezkeen postu hutsak betetzeko.

18. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen aldaketa Elkartearen Erregistroan inskribatzea.

- a) Zuzendaritza Batzordearen aldaketa nahitaez inskribatu beharko da Elkartearen Erregistroan, kargudunak berrautatuak izan nahiz berriak izan.
- b) Elkarteak ez badu bete gertatutako aldaketak (Presidenteak, Idazkaria, Diruzaina eta, hala badagokio, kide anitzeko batzordeko kideak) Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroari komunikatzeko betebeharra, edo aldaketak ez badira gauzatu estatutuetan aurreikusitako epeetan, Zuzendaritza Batzordearen aldaketa eskatzen duen unean erantzukizunpeko aitorpen bat (Erregistroaren web orrian dago ereduak) aurkeztu beharko du, adierazteko zein izan diren horrela jokatzeko arrazoiak (aitorpena Presidenteak izenpetuko du, edo, bestela, Idazkariak ziurtatuko du, Presidentearen oniritziarekin).
- c) Zuzendaritza Batzordea Erregistroan inskribatzeko izapidea elektronikoki egingo da, ziurtagiri digitalaren (IZENPE) bidez, eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztuz:
 - 1. Batzar Nagusiaren erabakiaren ZIURTAGIRIA (Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistroaren web orrian dago ereduak), Idazkariak, Presidentearen oniritziarekin, emana.
 - 2. Batzordeko kideen aldaketak Presidenteari eta/edo Idazkariari ere eragiten badie, kargua utzi dutenek eta izendatutakoek sinatu beharko dute ziurtagiria.

3. ATALA - IRAKASLEEN KLAUSTROA

19. artikulua. Irakasleen Klaustroaren zugarriak eta osaera.

- a) Musika eta Dantza Eskolako Irakasleen Klaustroa irakasleek Eskolan parte hartzeko organoa da.
- b) Musika eta Dantza Eskolan lan egiten duten irakasle guztiek osatzen dute. Klaustroko Presidenteak Eskolako Zuzendaria izango da.
- c) Klaustroko irakasleek konpromisoa hartzen dute irakaskuntza lanean eskura ditzaketen informazioak eta dokumentuak isilpean gordetzeko, eta konfidentziasun konpromisoaren dokumentua nahitaez sinatuko dute.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

20. artikulua. Irakasleen Klaustroaren zereginak.

Klaustroaren zereginak honako hauek dira:

- a) Ikastetxeko Curriculum Proiektua osatzea eta onartzea.
- b) Urteko Plana osatzea.
- c) Ikasturteko Urteko Memoria ezagutzea.
- d) Eskolaren araudien inguruko dokumentu guztiak aztertzea.
- e) Ikasleak ebaluatzeko irizpideak finkatzea eta koordinatzea.
- f) Zuzendaritza Batzorderako irakasle ordezkaria hautatzea.
- g) Zuzendariari proposamenak, eskaerak, hobekuntzak, kezkak, txostenak eta abar aurkeztea, egoki iritziz gero.
- h) Araudi hau betetzetik eta aplikatzetik eratorritako gainerako zereginak.

21. artikulua. Irakasleen Klaustroaren bilkurak.

- a) Irakasleen Klaustroaren bilkurak Zuzendariak deituko ditu, eta hiru motatakoak izan daitezke: ohikoak, ezohikoak eta presazkoak.
- b) Ohiko bilkurak gutxienez hiru hilean behin egingo dira. Ezohiko bilkurak Zuzendariak deituta egingo dira, edo klaustroko kideen laurden batek gutxienez eskatuta. Azken kasu horretan, eskaera aurkeztu eta gehienez ere zazpi egun naturaleko epean bilduko da.
- c) Klaustroko kideen ohiko bilkurak gutxienez astebete lehenago deitu beharko dira, gai zerrendarekin batera, eta ohiz kanpokoak, bi egun lehenago, presako bilkura bereziak izan ezik, horiek presako deialdia klaustroak berak berretsi beharko baitu.
- d) Klaustrokide guztiek nahitaezkoa dute bilkuretara joatea, Zuzendariak irakaslearen eginkizunekin zerikusi zuzena duen beste eginbeharren bat egin behar izateagatik lizentziarik edo baimenik eman ezean.
- e) Klaustroa legez eratutzat joko da irakasle guztien herena bertaratuta. Bilkura osoan mantendu beharko da quoruma, erabakiak legezkoak izan daitezen. Nolanahi ere, nahitaezkoa izango da Zuzendaria eta Idazkaria bertan egotea.
- f) Ohiko bilkuretako gai zerrendako azken puntua "Eskaerak eta galderak" atala izango da. Parte hartzaileek zuzendariari galderak eta iradokizunak egin diezazkiekete betetzen dituzten karguei dagozkien eginkizunei dagokienez, baina horrek ez du esan nahi landutako gaiak gerora berrituko direnik.
- g) Ezingo da gai zerrendan agertzen ez den gairik erabaki, salbu eta bilkuran aurkezten diren mozioak presakotzat jotzen badira klaustroaren gehiengo osoaren bidez.
- h) Erabakiak bozketa agerikoan hartzen dira, klaustrokideren batek isilpeko bozketa eskatzen duenean izan ezik. Botoa aldekoa, kontrakoa, zuria edo bozketak berak eskatutakoaren arabera izan daiteke, eta klaustrokideek abstentzioa ere eska dezakete.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

- i) Aldeko botoen gehiengo soilez hartuko dira erabakiak, hau da, aldeko botoek aurkakoak gainditzen dituztenean. Berdinketa gertatuz gero, beste bozketa bat egingo da, eta berdinketak jarraitzen badu, zuzendariaren kalitateko botoak erabakiko du.
- j) Gai zerrenda Zuzendariak egingo du, eta gai zerrendako gai guztiei buruzko dokumentazio guztia bidaliko zaie klaustroko kide guztiei.
- k) Aztertutako gaiak, Araudi honen 21. artikuluan jasotako eskumenekoak ez direnean, aholku mailakoak izango dira, eta bozketetan klaustroko kideen kezkak baino ez dituzte adieraziko.
- l) Bilkuraren akta, eguna, ordua, lekua, bertaratuen izenak, aztertu beharreko gaiak eta erabakien edukia adierazita, administrazio idazkariak edo eskolako zuzendariak (administrazio idazkaria irakaslea ez bada) egingo du.
- m) Aktak administrazio idazkariak izenpetuko ditu eta zuzendariak ontzat emango, eta bilkuran bertan edo hurrengoan onartuko dituzte. Idazkaririk ez balego, zuzendariak izendatuko du akta jaso behar duen laguna.

II. KAPITULUA - PERTSONA BAKARREKO AGINTE ORGANOAK ETA KARGUAK

1. ATALA - ZUZENDARIA

22. artikulua. Zuzendaria.

- a) Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako zuzendaria klaustroko irakasle bat izango da. Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du, Eskolako irakasleen klaustroak proposatuta.
- b) Eskolako zuzendari izateko hautagaiek Antolakuntza eta Jarduera Araudi honetako 24. artikuluko xedapenetan zehazten diren betekizunak bete beharko dituzte, bai eta hautaketa prozedura, agintaldiaren iraupena eta eginkizunen lagapena ere.
- c) Zuzendaritza kargua gutxienez 4 urtez bete beharko da, izendatzen denetik eta karguaz jabetzen denetik.
- d) Zuzendaritza kargua utzi ahal izango da honako kasu hauetan:
 - 1. 4 urteko agintaldia amaitzean. Hala ere, iraupen bereko aldietan errepikatu ahal izango da, betiere alderdien (irakasleen klaustroa eta Zuzendaritza Batzordea) arteko adostasuna badago.
 - 2. Zuzendaritza Batzordeko kideen 2/3aren erabakiz kargugabetzea.
 - 3. Dimisio arrazoitua aurkezten denean.
- e) Zuzendariak batera beteko ditu zuzendaritza kargua eta irakaskuntza eginkizuna. Bi zeregin horietan emandako ordu kopurua une bakoitzeko premien eta zirkunstantzien arabera izango da, betiere Eskolaren interesak lehenetsiz.



BIZKARGI **Musika eta Dantza Eskola**

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

23. artikulua. Zuzendari kargurako hautagaiaren betekizunak.

Zuzendari kargua betetzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Euskara HE2, C1 edo baliokidea egiaztatua izatea.
- b) Musikako Goi Mailako Titulazioa edo halakorik ezean, Musika eta Dantza Eskolan ematen duen espezialitatearen Habilitazioa izatea.
- c) Eskolako irakaslea izatea eta gutxienez 3 urteko antzintasuna izatea Eskolan.
- d) Bizkargi Musika eta Dantza Eskolan gutxienez %60ko lanaldia izatea.
- e) Eskolako Idazkaritzaren ordutegian egunero goizez eta arratsaldean egon ahal izatea.

24. artikulua. Zuzendaria hautatzeko prozesua.

Zuzendari berria hautatzeko eta izendatzeko prozesua jarraian zehazten diren epeak eta urratsak errespetatuz egingo da nahitaez:

- a) Eskolako zuzendariak lehenengo hiruhilekoa amaitu baino lehen hasiko du zuzendari berria hautatzeko eta izendatzeko prozesua. Klaustroa deituko du, irakasleei zuzendari berria hautatzeko prozesuaren berri emateko. Zuzendariak online bertaratzea erraztuko die bilera horretara joan ezin diren irakasleei.
- b) Hautagaiak 30 egun naturaleko epea izango dute, klaustroa biltzen den egunetik hasita, beren hautagaitzak eta, hala badagokio, proiektuak klaustroari aurkezteko, irakasleek azter eta balora ditzaten.
- c) 30 egun naturaleko epe hori amaitutakoan, zuzendariak posta elektronikoz bidaliko die klaustroko irakasle guztiei hautagaien zerrenda. Irakasleek 3 laneguneko epea izango dute botoa emateko Eskolako idazkaritzan horretarako jarriko den hautestontzian.
- d) Bozketaldia amaitutakoan, zuzendariak zenbaketa egingo du klaustroko kide baten aurrean.
- e) Klaustroak gehiengo soilez aukeratuko du zuzendari berria, bai hautagai bakarra aurkezten bada, bai hautagai bat baino gehiago aurkezten bada.
- f) Eskolako zuzendariak Zuzendaritza Batzordeko presidenteari jakinaraziko dio klaustroak Eskolako zuzendari kargurako aukeratutako hautagaia.
- g) Zuzendaritza Batzordeko presidenteak Zuzendaritza Batzordeari dei egingo dio Eskolako zuzendari berria onartu eta izenda dezan, Eskolako zuzendariak jakinarazpena egin eta 7 egun naturaleko epean.
- h) Zuzendaria hautatzeko prozesua hasteko unean hautagairik ez badago edo aurkeztutako hautagaiak/hautagaiak Klaustroaren onespina lortzen ez badute, Zuzendaritza Batzordeak, zuzendariari entzun ondoren, bitarteko zuzendaria izendatuko du gehienez urtebeterako.
- i) Urte hori igarota, zuzendari berria hautatzeko prozesuari ekingo zaio berriro.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

25. artikulua. Zuzendariaren zereginak.

Zuzendariaren zereginak honako hauek dira:

- a) Eskolaren barne-funtzionamendurako legeak eta arauak betetzen direla bermatzea.
- b) Eskolako klaustroko irakasleen buru izatea.
- c) Klaustroaren bileren aktak egitea, administrazio idazkaria irakasle ez den langilea denean.
- d) Eskolaren jardura guztiak zuzendu eta koordinatzea, irakasleen klaustroari dagozkion eskumenak alde batera utzi gabe.
- e) Hezkuntza berrikuntza sustatzea eta Hezkuntza Proiektuaren helburuak lortzeko planak bultzatzea.
- f) Zuzendaritza Batzordean aztertu beharreko gaiak prestatzea.
- g) Urteko Memoria eta Urteko Plana Zuzendaritza Batzordeari aurkeztea, onar ditzan.
- h) Urteko Memoria Udalari helaraztea.
- i) Berdinketa bere botoarekin ebaztea, dagozkion erabakiak hartzeko.
- j) Eskolako materialaren alderdi guztiak behar bezala mantentzen eta erabiltzen direla zaintzea.
- k) Zuzendaritza Batzordeari Eskolak behar dituen obra, zerbitzu eta horniduren kontratazioa proposatzea.
- l) Familiarik, instituzioekiko eta Eskolaren eta ingurunearen arteko harremana sustatzen duten erakundeekiko lankidetzat bultzatzea.
- m) Ekitaldi eta jardura akademikoetan Eskolaren ordezkari izatea.
- n) Jendeari arreta ematea Eskolako Idazkaritzan, alde aurretik hitzordua adostu bada.

26. artikulua. Zuzendariaren irakaskuntza zereginak.

Zuzendariaren irakaskuntza zereginak honako hauek dira:

- a) Eskolako Urteko Plana eta Urteko Memoria idaztea.
- b) Eskolako egutegia prestatzea.
- c) Urteko Eskola Planean jasotako jardura akademikoak koordinatzea eta betetzen direla zaintzea.
- d) Irakasleen Klaustroaren bilkurak deitzea eta zuzentzea.
- e) Klaustroaren bilkuretan tratatuko diren gaiak prestatzea.
- f) Irakaskuntza eskaintza proposatzea eskaintzaren eta eskariaren arabera, Eskolaren Araudiaren arabera.
- g) Eskola ordutegia eta jardueren plan orokorra egokitzeko irizpideak ezartzea eta betetzen direla ziurtatzea.
- h) Udalak, erregelamendu honek edo beste arau batzuek hezkuntza-arloan esleitzen dioten beste edozein eginkizun.
- i) Araudi hau betetzetik eta aplikatzetik eratorritako gainerako zereginak.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

2. ATALA - ADMINISTRAZIO IDAZKARIA

27. artikulua. Administrazio Idazkaria.

- a) Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako administrazio-idazkaritza, ahal dela, bertako irakasle batek beteko du, Zuzendaritza Batzordeak izendatuta.
- b) Administrazio idazkari kargua gutxienez 4 urtez bete beharko da, izendatzen denetik eta karguaz jabetzen denetik.
- c) Administrazio idazkaria irakaslea bada, batera beteko ditu administrazio eginkizunak eta irakaskuntza eginkizuna. Bi eginkizunetan emandako ordu kopurua unean uneko premien eta zirkunstantzien arabera izango da, betiere Eskolaren interesei lehentasuna emanez.
- d) Administrazio idazkari kargua utzi ahal izango da honako kasu hauetan:
 - 1. 4 urteko epea amaitzean. Hala ere, iraupen bereko aldietan errepikatu ahal izango da.
 - 2. Zuzendaritza Batzordeko kideen 2/3aren erabakiz kargugabetzea.
 - 3. Dimisio arrazoitua aurkezten denean.
- e) Administrazio eginkizunak betetzeko irakaslerik ez badago, Zuzendaritza Batzordeak langilea kontratatuko du eginkizun horiek betetzeko.

28. artikulua. Administrazio Idazkariaren zereginak.

Administrazio Idazkariaren zereginak honako hauek dira:

- a) Eskolako administrazio lanez arduratzea.
- b) Zuzendariari aholkularitza eta laguntza ematea Eskolaren antolaketan, gobernuan eta administrazioan.
- c) Datu akademikoak antolatzea.
- d) Klaustroaren bileren aktak egitea, kargua irakasle batek betetzen badu.
- e) Eskolako Idazkaritzan jendeari arreta ematea.
- f) Zuzendariak bere eskumenen arabera esleitzen dizkion gainerako zereginak.
- g) Araudi hau betetzetik eta aplikatzetik eratorritako gainerako zereginak.

III. KAPITULUA - IRAKASKUNTZA KOORDINTZEKO ORGANOAK

1. ATALA - DEPARTAMENTUAK

29. artikulua. Departamentuen ezaugarriak eta osaera.

- a) Departamentuak, beren espezialitate eta ikasgaiei dagozkien jarduerak antolatu eta garatzea zeregin nagusitzat duten organoak dira.
- b) Departamentuak Eskolako irakasle guztiek osatzen dituzte. Irakasle guztiak departamentu bati atxikita egongo dira.



BIZKARGI Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

30. artikulua. Departamentuaren zereginak.

Departamentuaren zereginak honako hauek dira:

- a) Hezkuntza Proiektuaren, Curriculum Proiektuaren, Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren eta Urteko Planaren edozein aldaketa eztabaidatu eta gainbegiratzea, eta aldatzeko eta hobetzeko proposamenak aurkeztea, ondoren eztabaidatzeko.
- b) Departamentua osatzen duten ikasgai eta espezialitateen programazio didaktikoak ikasturtea hasi aurretik egitea.
- c) Ikasleei ikasgaien eta espezialitateen helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak jakinaraztea ikasturtearen hasieran.
- d) Programazioetan ezarritako helburuetara egokitutako material didaktikoa hautatzea.
- e) Beste Departamentuekin batera jarduerak (kontzertuak, emanaldiak e.a.) proposatzea eta antolatzea.
- f) Urteko Planerako ekintzak proposatzea.
- g) Araudi hau betetzetik eta aplikatzetik eratorritako gainerako zereginak.

II. TITULUA - HEZKUNTZA KOMUNITATEA

I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

31. artikulua. Hezkuntza komunitateko kideak eta Araudiaren aplikazio eremua.

- a) Irakasle guztiak, ikasleak, horien gurasoak (adin txikiko ikasleen kasuan) edo legezko tutoreak (legezko zaintzapean dauden ikasleen kasuan) osatzen dute Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako komunitatea.
- b) Hezkuntza komunitateko kide horiek guztiek Eskolako Hezkuntza Proiektua eta Araudi hau ezagutu eta errespetatu beharko dute, eta beren jarduerak hauen arabera izan beharko dira.

32. artikulua. Hezkuntza komunitateko kideen eskubideak.

Hezkuntza komunitateko kideen eskubideak honako hauek dira:

- a) Beren eskubideak, osotasuna eta duintasuna errespetatzea, eta datu pertsonalak babestea.
- b) Eskolako Hezkuntza Proiektua eta Araudia ezagutzea.
- c) Eskolako funtzionamenduan eta jardueretan parte hartzea.
- d) Eskolako Zuzendaritzari erreklamazioa egitea, norbere eskubideak urratu direla uste bada.
- e) Zuzendaritza Batzordeari iradokizunak eta erreklamazioak aurkeztea.

33. artikulua. Hezkuntza komunitateko kideen betebeharrak.

Hezkuntza komunitateko kideen betebeharrak honako hauek dira:

- a) Eskolako kide guztien eskubideak errespetatzea.
- b) Eskolako Hezkuntza Proiektua eta Araudia errespetatu eta betetzea.
- c) Araudi honek, Eskolako Hezkuntza Proiektuak eta Eskolako Zuzendaritzak une bakoitzean erabakitako araudi nahiz ebazpenak bete eta aplikatzetik eratorritako gainerako betebeharrak.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

II. KAPITULUA - IRAKASLEAK

1. ATALA - XEDAPEN OROKORRAK

34. artikulua. Irakasleak hautatzea eta onartzea.

Eskolako Zuzendaritza da irakasleen lanpostu hutsak betetzeko organo eskuduna.

35. artikulua. Irakasleen lanaldia.

Irakasleen lanaldian, bereizi egingo dira eskola egunak (kopurua, hezkuntza administrazioaren irizpideen arabera) eta eskola egunak ez direnak. Eskola egutegian jasotako sektoreko eskolak, azterketak eta zaindariaren jaiak eskola eguntzat hartuko dira. Hitzarmenean ezarritako egutegia betetzeko falta diren gainerako egunak eskolarik gabeko egunak izango dira.

36. artikulua. Lanaldiko orduak.

- a) Eskola orduak: onartutako eskola egutegiaren barruan, astean 25 eskola ordu izango dira (lanaldi osokoak), eskola teorikoak edo praktikoak emateko eta probak egiteko (ahozkoak, idatzizkoak, instrumentalak, dantzakoak, etab.).
- b) Irakastorduetatik kanpoko orduak: asteko 32 orduko lanaldia osatu arteko orduak dira (lanaldi osokoak). Eskolak, ariketak eta jarduerak prestatzeko eta ebaluatzeko, jarduera osagarriak prestatzeko eta egiteko, tutoretzarako, gurasoekin bilkurak egiteko, kide anitzeko organoetan parte hartzeko, emanaldietarako, entzunaldietarako eta abarretarako erabiliko dira.

37. artikulua. Zuzendaritza karguagatik orduak murriztea.

Zuzendaritza ardura duen irakasleari eskola orduen murrizketa eta ordainsari osagarria esleituko zaio, lan hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera.

38. artikulua. Ordutegiak prestatzea.

- a) Ordutegiak prestatzeko eta kontrolatzeko prozesua zuzendariaren ardura da, irakasleekin lankidetzan. Zuzendariak ordutegiak aldatu ahal izango ditu, baldin eta egiaztatzen badu ez direla egokiak Eskolaren interesetarako.
- b) Irakasleen lanaldia eskola egunetan eta eskola orduetan (10:00etatik 22:00etara) egingo da astelehenetik ostiralera (biak barne).

2. ATALA - IRAKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

39. artikulua. Irakasleen eskubideak.

Irakasleen eskubideak honako hauek dira:

- a) Lan jarduera baldintza egokietan egitea: baliabide egokiekin eta beharrezko segurtasun eta higiene baldintzekin, betiere Laneko Arriskuen Prebentziorako Planarekin bat badatoz.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

- b) Eskolako baliabide materialak eta instalazioak erabiltzea hezkuntza helburuetarako, horien erabilera arautzen duten arauak betez.
- c) Eskolako Hezkuntza Proiektua, Antolakuntza eta Jarduera Araudia, Eskolako Curriculum Proiektua, Ikasketa Plana eta ikasgaiaren programazio didaktikoak ezagutzea.
- d) Eskolako Zuzendaritzak hartutako erabakiei buruzko informazioa ezagutzea.
- e) Eskolako Hezkuntza Proiektuan eta Araudi honetan jasotako helburuekin bat datozen ekintza berriak egitea proposatzea Zuzendaritzari.
- f) Formazioa jasotzea.
- g) Datu pertsonalen babesa izatea.

40. artikulua. Irakasleen betebeharrak.

Irakasleen betebeharrak honako hauek dira:

- a) Hezkuntza eginkizuna betetzea, Eskolako Hezkuntza Proiektua eta Araudia errespetatuz.
- b) Metodologia Eskolak ezarritako ildo pedagogikoaren arabera garatzea.
- c) Lanaldia lan kontratuan ezarritakoaren arabera betetzea.
- d) Eskolak proposatutako formazio ikastaroetan parte hartzea. Irakasleen prestakuntzaren helburua gaitasun profesional handiagoa lortzea izan behar da, funtsezko elementua baita Eskolako hezkuntza jardunaren hobekuntzan eragiteko. Beraz, Eskolako lan orduetan egindako eta/edo Eskolak finantzatutako prestakuntza ikastaroetan lortutako materiala eta baliabideak Eskolan geratu behar dira nahitaez, eta, gainera, eskuratutako ezagutzek eragin zuzena izan beharko lukete ikasgelako praktikan.
- e) Zuzendaritzatik jasotako edo Klaustroan onartutako jarraibideak, neurriak, akordioak e.a. betetzea.
- f) Ikasleen arau-hauste larriak eta oso larriak Zuzendaritzan jakinaraztea.
- g) Irakastorduetarako (eskola orduak) nahiz irakastorduak ez diren (eskola orduak ez direnak) orduetarako finkatutako lan ordutegia betetzea:
 - 1. Ordu lektiboak (eskola orduak): Irakasleek Zuzendaritzak ezarritako gutxieneko denbora errespetatu beharko dute Eskolan bertan irakaskuntzari lotutako edozein lan edo jarduera egiten.
 - 2. Ordu ez lektiboak (Irakastorduetatik kanpoko orduak): Eskolaren garapen akademiko eta pedagogikorako Zuzendaritzak esleitutako zereginetarako erabiliko dira, hala nola klaustroak, entzunaldiak, jaialdiak edo eskolaz kanpoko beste jarduera batzuk.
- h) Ikasleen ebaluazio eginkizuna garatzea, dagokion programazio didaktikoan ezarritako irizpideen arabera.
- i) Hezkuntza eginkizunen barruan ordenari eta diziplinari eusten laguntzea, bai ikasgelan, bai Eskolako beste eremuetan.
- j) Eskola orduetara garaiz iristea.
- k) Ikasleen bertaratzea kontrolatzea eta, bestela, dagokionari jakinaraztea.
- l) Hezkuntza eginkizunaren berezko betebeharrak betetzea, hala nola ikasleen ebaluazio informeak prestatzea edo irakaskuntzako beste edozein agiri aurkeztea.
- m) Esleitutako ikasleen tutorea izatea.
- n) Aukeratzen edo izendatzen badute, kargua onartzea, Eskolaren araudiaren arabera.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

- o) Konfidentzialtasun profesionala gordetzea ikasleei, gurasoei, legezko tutoreei eta irakasleei buruzko alderdi eta datuei dagokienez, bai eta irakasleen klaustroak eta Eskola gobernuko beste edozein organok hartutako erabaki eta ebazpenei dagokienez ere, arlo guztietan, Datu Pertsonalak Babesteko legearekin bat etorritik.
- p) Lanera ez joatearen berri ematea:
 - 1. Irakasleek egun jakin batean lanera joatea ezinezkoa dela aurreikusten badute, behar besteko aurrerapenaz eskatu beharko diote zuzendaritzari baimena, Eskolak ezarritako prozedurari jarraituz (**II. Eranskina**).
 - 2. Lanera ez joateagatik eman ez diren eskolak lehenbailehen berreskuratu behar dira.
 - 3. Irakaslearen baja ordezkatzeko inor egon ezean, irakasleak berak erreklamatu ahal izango ditu eskola orduak hiruhileko berean edo hurrengoan, horregatik dagokion ordainsaria jasoz.

3. ATALA - TUTORE KARGUA

41. artikulua. Tutore kargua izendatzea.

Ikasle guztiek gutxienez tutore bat izango dute beren ikasketen jarraipena egiteko. Ikasgai bat baino gehiago dituen ikasleak ikasgai bakoitzari dagokion tutorea (ikasgaiko irakaslea) izango du.

III. KAPITULUA- BIZIKIDETZA EREMUA

1. ATALA - XEDAPEN OROKORRAK

42. artikulua. Bizikidetza-arauen helburu nagusia.

Eskolak bizikidetza demokratikoa eta Eskolako kide guztien oinarritzko eskubideak errespetatzea ahalbidetzen duten balioetan oinarritutako hezkuntza-jarduera garatuko du.

Elkarbizitza hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsona guztien artean sortzen diren harremanen bidez eraikitzen da, eta bizikidetza hori positiboa izango da, betiere eraikuntza hori errespetuan oinarritzen bada eta guztien desberdintasunak eta iritziak berdintasunez onartzen badira.

Araudi honetan planteatutako bizikidetza-arauek ikuspegi hezitzaile eta positibo bati erantzuten diote; izan ere, gure ustez, arau horiek Eskolan sor daitezkeen gatazkak modu baketsuan eta hezitzailean konpontzera eta kide guztien aniztasunarekiko eta berdintasunarekiko errespetua bermatzera bideratuta egon behar dute.

Eskoletako gobernu-organismoek, beren eskumenen esparruan, araudi honetan jasotako bizikidetza-arauek behar bezala errespetatzen dituztela bermatu beharko dute.

43. artikulua. Ikasleen huts egiteak.

- a) Ikasleek Eskolara joan beharra bermatzeko, honako arau hauek hartuko dira kontuan:
 - 1. Irakasleek kontrolatu beharko dituzte ikasleek klaseetara egiten dituzten huts egiteak, eta, ikasle adingabeen kasuan, haien familiei jakinarazi.



BIZKARGI **Musika eta Dantza Eskola**

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

2. Ikasle bat klasera joaten ez denean, ikaslearen beraren ardura izango da klase-ordu horretan landutako edukiak berreskuratzea.
3. Ikasturteko klase-ordu guztien % 20 justifikatu gabe huts egiten duen ikasleak matrikula berritzeko eskubidea galduko du. Orduen % 20 huts egitea lehenengo hiruhilekoan gertatuz gero, ikaslea baja izango da, eta beste ikasle batek beteko du toki hutsa.
4. Ikasleak justifikatu gabeko hutsegiteen kopurua agortzen badu, Eskolako Zuzendariak jakinaraziko dizkio interesdunari ezarriko zaizkion neurri zuzentzaileak.
5. Gaixotasunagatik edo beste arrazoiren batengatik klaseetara ez joateak ez du kuotak ordaintzetik salbuesten.

b) Honako hauek hartuko dira hutsegite justifikatutzat:

1. Gaixotasun luzea edo aldi baterakoa.
2. Gertakari edo inguruabar pertsonal larriak edo salbuespenezkoak.
3. Musika eta Dantza Eskolaren beste edozein ekintzarekin klase-ordua bat etortzea.
4. Ikasleek idatziz jakinarazi eta justifikatu beharko dituzte klaseetara ez joateak. Ikasle adingabeen kasuan, gurasoek edo legezko tutoreek justifikatu beharko dituzte hutsegiteak.

c) Ez dira justifikatutzat joko Musika eta Dantza Eskolaz kanpoko beste jarduera batzuetara (Eskolarekin zerikusirik ez duten entseguak eta ekintzak, klase partikularrak, hizkuntza eskolak, kirol jarduerak, katekesia e.a.) joateagatik egindakoak.

d) Eskolako Zuzendaritzak du klaseetara hutsegitearen justifikazioak onartzeko edo ukatzeko eskumena.

2. ATALA - IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

44. artikulua. Ikasleen eskubideak

Ikasleen eskubideak honako hauek dira:

- a) Eskolaren Hezkuntza Proiektuari, Antolakuntza eta Jarduera Araudiari, Eskolaren Urteko Planari eta ikasi nahi dituzten ikasgaiei buruzko informazio guztia (ordutegiak, programazio didaktikoa, etab.) jasotzea.
- b) Kontzientzia askatasuna, ideologia erlijioso, etiko eta moralak, duintasuna eta intimitatea errespetatzea.
- c) Eskola bizikidetzaren aurkako jokabide desagokiak zuzentzeko ezarritako neurri zuzentzaileen ondoriozko tratu iraingarriak ez jasotzea.
- d) Ikasleek hezkuntza komunitateko gainerako kideen eskubideak errespetatuz baliatuko dituzte beren eskubideak.
- e) Jarduera akademikoa segurtasun eta higiene baldintza egokietan gauzatzea, Eskolan aplikagarri den lege esparruaren barnean.
- f) Kalitateko irakaskuntza jasotzea, beren gaitasunak (musika, gorputz eta ahozko nahiz musika tresnen bidezko gaitasunak) garatzeko Eskolako bitartekoak erabiliz.



BIZKARGI **Musika eta Dantza Eskola**

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

- g) Irakaskuntzako ikasgaietan eta mailetan sartzeko aukera berdintasuna, ikasleen errendimendua eta ikasteko gaitasuna muga bakartzat hartuta.
- h) Eskola errendimendua objektibotasun osoz ebaluatzea eta dagokion pertsonari kalifikazioak erreklamatzeko, Araudi honen 80. eta 81. artikuluetan ezarritako prozeduraren arabera.
- i) Aldez aurretik ezarritako ordutegia errespetatzea eta, aldaketaren bat balego, behar besteko aurrerapenaz horren berri izatea.
- j) Beren (adin txikiko ikasleen kasuan beren gurasoek/legezko tutoreek) ikasketa prozesuaren garapenari buruzko inguruan gutxienez hiru hilean behin informazioa jasotzea.
- k) Eskolako Zuzendaritzari eta Eskolako Zuzendaritza Batzordeari erreklamazioak egitea, ahoz eta/edo idatziz. Idatzizko erreklamazioak Araudi honen 83. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera egin beharko dira nahitaez.

45. artikulua. Ikasleen betebeharrak

Ikasleen betebeharrak honako hauek dira:

- a) Eskolaren Antolamendu eta Jarduera Araudia onartzea eta betetzea.
- b) Eskolako hezkuntza komunitateko gainerako kideen eskubide eta betebeharrak errespetatzea.
- c) Kuotak ordainduta izatea Eskolak ezarritako epeetan.
- d) Helbide edo beste datu pertsonalen aldaketen berri ematea.
- e) Eskolako ohiko jardueran eragina izan dezakeen edozein gorabeheraren berri ematea irakasleei.
- f) Eskolako instalazioak eta materiala behar bezala erabiltzea.
- g) Ikaskuntza ikasleen eginbeharra da eta honako betebeharrak hauek dakartza:
 - 1. Klaseetara eta entseguetara joatea eta ezarritako ordutegiak betetzea.
 - 2. Ikasteko behar den denbora ematea.
 - 3. Eskolak antolatutako jardueretan parte hartzea, entseguak eta beharrezkoak diren gainerako prestakuntzak barne, ikaskuntzaren parte baitira. Ekintza horietan parte hartzea nahitaezkoa izango da, baldin eta Zuzendaritzak edo ekintzarekin lotutako irakasgaiaren irakasleak ikaslearen parte hartzea edo laguntza eskatzen badu, eta ekintzak behar bezala programatuta, baimenduta eta aldez aurretik jakinarazita badaude.

3. ATALA - IKASLEEN ARAU HAUSTEAK

46. artikulua. Arau hauste arinak.

- a) Puntualtasuna eta klaseetara bertaratzea
 - 1. Klasera behin eta berriz garaiz ez joatea, justifikatutako arrazoirik gabe.
 - 2. Hiruhileko berean justifikatu gabeko 3 hutsegite izatea.
- b) Materiala eta instalazioak
 - 1. Eskolako instalazioei, altzariei, materialari edo hezkuntza komunitateko kideen gauzei kalte arina nahita edo erabilpen desegokiagatik kaltea eragitea.
 - 2. Eskola barruan baloiarekin, pilotarekin eta abarrekin jolasean ibiltzea.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

c) Teknologia berriak

1. Erabat debekatuta dago ikasleek argazkiak ateratzea, grabatzea eta telefono mugikorrek edo grabazio bitartekoak dituen edozein gailu erabiltzea Eskola eremu osoan, salbu eta irakasleak baimendutako eginkizunen bat egiteko badira.
2. Eskolako ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo zeinahi motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.

d) Hezkuntza komunitateko kideen arteko harremanak

Irakasleen jarraibideei edo aginduei jaramonik ez egitea, betiere ikasleak haiek mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu; baita Eskolako gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.

Besteak beste, honako arau hauste hauek:

1. Hezkuntza komunitateko kideekiko edozein jarrera, keinu edo hitz desagokiak, baldin eta larriak ez badira.
2. Hezkuntza komunitateko kideen aurkako eraso fisiko arinak.
3. Irakasleen jarraibideei edo aginduei jaramonik ez egitea.
4. Irakaslearen azalpenak behin eta berriro moztea.
5. Gelako ikaskideen arreta oztopatzea.
6. Ikaskideen ikasteko beren eskubidea urratuko duen edozein jardura.
7. Irakaslearen baimenik gabe gelatik irtetea.
8. Klaserako beharrezkoa den materiala behin eta berriz ez ekartzea.
9. Gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.
10. Ezarritako neurri zuzentzaileei jaramonik ez egitea.
11. Justifikatu gabeko beste edozein ekintza, banako edo taldekoa, baldin eta Eskolako ohiko jarduna modu arinean aldatzen badu.

e) Norberaren betebeharren beste edozein ez betetzea

1. Norberaren betebeharren beste edozein ez betetze, betiere hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori Eskolako bizikidetzari kalte larria edo oso larria eragiten dion jokabide gisa sailkatua ez badago.

47. artikulua. Arau hauste larriak.

a) Klaseetara bertaratzea

1. Asistentzia falta justifikatu gabeak eta, ikasturteko klase-ordu guztien % 20tik aurrera.

b) Eskolako dokumentuak eta jakinarazpenak

1. Eskolako dokumentuak lapurtzea edo/eta dokumentu akademikoetan zein bestelako idatzi bidezko jakinarazpenetan aldaketak egitea.

c) Materiala, instalazioak eta segurtasuna

1. Kalte larriak eragitea bidegabeko erabileraetik Eskolako instalazioei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza komunitateko gainerako kideen gauzei



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

2. Lapurretak.
3. Hezkuntza komunitateko edozein kideri lesio fisikoak eragin diezazkiokeen objektuak zuhurtzearik gabe erabiltzea.
4. Eskolaren segurtasunerako elementuak (alarma, su itzalgailuak, larrialdietarako atak...) erabiltzea, haiei nahita kalteak egitea edota behar ez bezala erabiltzea.
5. Eskolako esparruan erretzea.

d) Teknologia berriak

1. Eskolako sistema informatikoan aldaketak egiteko sartzea.

e) Hezkuntza komunitateko kideen arteko harremanak

1. Eskolako Zuzendaritzak eta Zuzendaritza Batzordeak indarrean dagoen Araudia betearazteko hartutako erabakiak edo/eta emandako ebazpenak ez betetzea.
2. Pertsona bakarreko gobernu organoen edo irakasleen eta Eskolako gainerako langileen aginduak desobeditzea, beren eginkizunak betetzean, baldin eta diziplinarik eza, irainak, mespretxuak, erronkak edo mehatxuak badituzte.
3. Ikaskideak ados jartzea eskola jardura bat oztopatzeko.
4. Irakasleak agindutakoa ez betetzeaz gain, gelakideak gauza bera egitera bultzatzea.
5. Jokabidea zuzentzeko ezarritako neurri zuzentzaileak ez betetzea.
6. Gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkatzea, horren ondorioz hezkuntza komunitateko beste kide batzuei kalte larria egiten bazaie.
7. Ikaskideen edo hezkuntza komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxu edo irain larriak.
8. Eraso psikologikoak: min egiteko, barregarri uzteko edo baztertzeko asmoz egindako irain edo laidoak.
9. Ahulago edo gazteago den norbaiti egindako irain edo laido larriak.
10. Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea, betiere indarkeriarik erabili gabe.
11. Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.
12. Justifikatu gabeko beste edozein ekintza, banako edo taldekoa, baldin eta Eskolako ohiko jarduna modu larrian aldatzen badu.

f) Berrerortzeak

1. Hiruhileko berean hiru arau hauste arin egitea.

g) Norberaren betebeharren beste edozein ez betetzea

1. Norberaren betebeharren beste edozein ez betetze, hezkuntza komunitateko gainerako kideen eskubideak baliatzea larriki eragozten, oztopatzen edo eragozten ez duena.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

48. artikulua. Arau hauste oso larriak.

a) Eskolako dokumentuak eta jakinarazpenak

1. Eskolako jarduneko egintzetan beste edonoren izena erabiltzeak oso ondorio larriak eragiten baditu.
2. Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen Eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, truketzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkutatzea edo baimenik gabe ateratzea ere.

b) Materiala, instalazioak eta segurtasuna

1. Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, Eskolako langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka bai taldean.

c) Teknologia berriak

1. Besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea.

d) Hezkuntza komunitateko kideen arteko harremanak

1. Eskolako Zuzendaritzak eta Zuzendaritza Batzordeak indarrean dagoen Araudia betearazteko hartutako erabakiak edo/eta emandako ebazpenak behin eta berriz ez betetzea.
2. Eskolako gobernu organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik gabeko egintza edo obedientzia ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza komunitateko kideen aurkako adierazpen biziki laidogarri edo iraingarriak ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.
3. Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irain oso larriak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.
4. Jazarpen sexista: Nahi ez duen batekin edota bere sexua dela eta, hitzez, keinuz edo fisikoki edozein jazarpen jasatea.
5. Hezkuntza komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.
6. Bizikidetzaren aurkako jokabide larri guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean; baita berdinen arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere.
7. Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.

e) Berrerortzeak

1. Ikasturte berean hiru arau hauste larri egitea.

f) Norberaren betebeharren beste edozein ez betetzea

1. Norberaren betebeharren beste edozein ez betetze, hezkuntza komunitateko gainerako kideen eskubideak baliatzea oso era larrian eragozten, oztopatzen edo eragozten ez duena.



BIZKARGI **Musika eta Dantza Eskola**

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

4. ATALA - IKASLEEN ARAU-HAUSTEAK ZUZENTZEKO NEURRIAK

49. artikulua. Arau hauste arinak zuzentzeko neurriak.

Irakasleak ondorengo neurri hauetako baten edo gehiagoren bidez zuzenduko du jokabide desegokia:

- a) Ahozko ohartarazpena eta araua gogoraraztea.
- b) Ikasleak hurrengo eskola ordurako azalpen bat prestatzea eta irakaslearekin hitz egitea.
- c) Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea eta, hala badagokio, barkamena eskatzea.
- d) Lurrera botatakoa jasotzea.
- e) Zikindutakoa garbitzea.
- f) Instalazioetan, materialean edo hezkuntza komunitateko beste kideen gauzetan eragindako kaltea konpontzea edo konponketaren kalte ordaina ematea.
- g) Zuzendariaren edo une horretan Eskolan dagoen zuzendaritza taldeko kidearen aurrean agertzeko agindua ematea, ikasleak gertatutakoa azal diezaion.

50. artikulua. Arau hauste larriak eta oso larriak zuzentzeko neurriak.

Zuzendariak bizikidetzaren aurkako jokabide larriak zuzentzeko Araudi honen 50.artikuluari aipaturiko neurriez gain, ondorengo neurrietako bat edo gehiago ezar ditzake:

- a) Kargu hartze idatzia.
- b) Kargu hartzea, ikasleen gurasoak edo lege ordezkariak bertan direla.
- c) Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo konponketaren kalte ordaina ematea.
- d) Egun batzuetako eskoletara joateko eskubidea eta jarduera osagarriak zein Eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea, harik eta ikaslearen gurasoekin edo lege-ordezkariekin elkarriketa bat egiten den arte. Eskubide etendura horrek ezingo du hiru egun baino gehiago iraun.
- e) Eskolatik aldi baterako edo behin betiko kanporatzea; horrek hurrengo ikasturtean matrikulatzeko eskubidea galtzea ekar dezake.
- f) Nolanahi ere, kalte materialik egonez gero, arau haustea eragindako kalteak konpondu beharko ditu edo konponketaren kalte ordaina eman beharko du. Era berean, ikasleren batek Eskolatik ondasunak lapurtzen baditu, lapurtutakoa itzuli beharko du. Ikasleak adin txikikoak badira, ikasleen gurasoak edo legezko tutoreak ikasleen erantzule zibilak izango dira, legeek xedatutakoaren arabera.

5. ATALA - JOKABIDE DESEGOKIAK ZUZENTZEKO NEURRI ALTERNATIBOAK

51. artikulua. Xedapen orokorrak

Bizikidetzarako jokabide larriak edo oso kaltegarriak zuzentzeko neurriak ez dira finkoak eta mugiezinak izango erabakiak hartu ondoren; aitzitik, eten, arindu edo ezabatu ahal izango dira baldintza jakin batzuk betetzeagatik. Hauek dira bide alternatiboak:



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

- a) Bizikidetzari kalte larriak edo oso larriak eragiten bazaizkio, zuzendariak ahaleginak egingo ditu ikasleek jokabide horiek zuzen ditzaten, beren borondatez edo, hala badagokio, gurasoek edo legezko ordezkariak onartutako neurrien bidez. Proposatutako neurriak onartzen badira, ez da prozedurarik hasiko edo eten egingo da prozeduraren bat hasi bada.
- b) Ezingo da horrela jokatu, salbuespenezko egoera hauetan:
1. Eskolako elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabideak izan dituen ikaslea adinez nagusia bada.
 2. Eskolako bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea gutxienez bi aldiz zuzendu bazaio.
 3. Bizikidetzarako oso kaltegarria den jokabidea, berdin arteko tratatu txarrak edo sexuan oinarritutako jazarpena dakarrena.
 4. Hezkuntza komunitateko kideren bati eraso larriak egin izana.
 5. Eskolan gutxienez bi aldiz saiatu badira bizikidetzari eragindako kalte larriak edo oso larriak bide horietatik konpontzen, eta lortu nahi den hezkuntza helburua lortu ez bada. Zuzendu nahi izan diren jokabideek izaera berekoak izan behar dute.

52. artikulua. Prozedura bertan behera uztea adiskidetzea gertatu delako edo kaltea konpondu delako. (III. Eranskina)

- a) Lehentasunez, eskubideak urratu zaizkion ikaslearen eta arau hauslearen arteko adiskidetzea bilatuko du zuzendariak. Gainera, ahal izanez gero, eragindako kalte materialak edo moralak konpontzen saiatuko da.
- b) Adiskidetzeak prozedura etengo du. Adiskidetzea izango da honako hauek ematen badira:
1. Ikasleak onartzea hark egin duen jokabidea bizikidetzari kalte larriak edo oso kalte larriak eragiten dizkiola, eta, beraz, urratu egin dituela hezkuntza komunitateko gainerako kideen eskubideak.
 2. Ikasleak barkamena eskatzea edo azalpenak ematea.
 3. Kaltetua izan den pertsonak, edo, kasuan-kasuan, Eskolako organo eskudunak barkamena onartzea.
 4. Jarduera hezitzailearen bat egitea onartzea.
- c) Prozedura bertan behera utziko da baldin eta konpondu egiten badira bizikidetzari kalte larriak edo hari kalte oso larriak eragiten dizkioten jokabideen biktimak edo erakunde kaltetuek jasandako kalteak, edo haiek konpontzeko konpromiso fidagarria hartzen bada. Konponketa horrek kalte materialak eta moralak konpondu behar ditu.
- d) Bide horiek erabiliz zuzendu diren jokabideen berri eman behar zaie Eskolako Zuzendaritza Batzordeari eta irakasleen klaustroari.

53. artikulua. Prozedura bertan behera uztea jokabidea familia eremuan zuzentzeagatik

Prozedura bertan behera uzteko aukera izango da, baldin eta, zuzendariaren iritziz, jokabidea behar bezala zuzentzen ari bada familia eremuan. Ezingo da halakorik egin, jokabidea Araudi honen 52. artikuluko b) idatz zatian adierazitakoren bat baldin bada.



BIZKARGI **Musika eta Dantza Eskola**

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

6. ATALA - NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO PROZEDURAK

54. artikulua. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko organo eskudunak.

- a) Ikasgelan, Eskolako beste eremuetan edota Eskolatik kanpo ikasleak haien zainketa zuzenaren pean dauden bitartean, Eskolako irakasle guztiek ikasleen jokabide desegokiak berehala zuzentzeko eskumena dute.
- b) Zuzendaritza taldea da bizikidetzari kalte larria eta oso larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko organo eskuduna.
- c) Irakasle guztiek dute eskumena ikasleari errieta egiteko, haien aurrean jokabide larriki kaltegarria eta bizikidetzarako oso larria gertatzen denean. Irakasleek, halaber, ikaslea zuzendariarengana edo une horretan Eskolan dagoen zuzendaritzako taldeko kideren batengana bidaltzeko eskumena dute, betiere, pertsonak edota objektuek kalteak jasotzea ekiditeko berehala hartu behar diren neurriak bazter utzi gabe.
- d) Zuzendaritza Batzordea da Eskolako Zuzendaritza Taldeak hartu dituen erabakiak berrikusteko eskumena duen organoa.

55. artikulua. Arau hauste arinak zuzentzeko ahozko prozedura.

Arau hauste arinak ahoz eta berehala zuzenduko dituzte irakasleek.

56. artikulua. Arau hauste larriak eta oso larriak zuzentzeko prozeduraren hasiera.

- a) Arau hauste larrien eta oso larrien zehapenen kasuan, hurrengo artikuluetan ezarritako prozedurari jarraituko zaio. Prozedura ofizioz hasiko da eta idatziz egingo da. Hasierako egintzak honako hauek barne hartu behar ditu: **(IV. Eranskina)**
 1. Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen azalpena.
 2. Arau hauste larri edo oso larri hori Araudi honen 48. eta 49. artikuluetako arau hauste batean kokatzea.
 3. Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen izaera kontuan harturik aplika daitezkeen neurriak.
 4. Dagokion neurria aplikatuko den erabakitzeko eskumena duen organoa zein den, eta organoari horretarako ahalmena esleitzen dion araua.
 5. Era berean, Araudi honen 53 eta 54. artikuluetan aurreikusi diren baketzeagatik, konpontzeagatik edo familia eremuan zuzentzeagatik eteteak jasoko dira.

57. artikulua. Hasierako jakinarazpena eta aldez aurretiko entzunaldirako zitazioa.

- a) Hasierako egintza, nolanahi ere, egotzitako jokabidearen ardura duen ikasleari jakinaraziko zaio, bai eta haren gurasoei edo legezko ordezkariari ere, ikasle adingabea bada.
- b) Jakinarazpenarekin batera, entzunaldirako zitazioa egingo zaio ikasleari (IV. Eranskineko BI.- atala), bai eta, hala badagokio, gurasoen edo legezko ordezkarien entzunaldirako zitazioa ere. Zitazio horretan, entzunaldiaren eguna eta ordua adieraziko dira.



BIZKARGI **Musika eta Dantza Eskola**

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

58. artikulua. Entzunaldiaren izapidea. (V. Eranskina)

- a) Entzunaldiaren izapidearen bidez, ikasleak entzuna izateko eta bere burua defendatzeko duen eskubidea bermatu ahal izango da. Beraz, hasierako egintzaren edukiari buruz eta eskolak bere erabakiaren oinarri gisa hartuko duen informazio osoari buruz, ikasleak egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ahal izango ditu.
- b) Ikasleari entzutea nahitaezkoa izango da kasu guztietan, ikaslearen adina eta hartu beharreko neurria edozein direla ere. Ikasle adingabeek eskubidea dute gurasoen edo legezko ordezkariaren laguntza jasotzeko entzunaldian. Azken horiek, nahi izanez gero, alegazioak egin ahal izango dituzte, baldin eta ikasleak bere egin baditu.
- c) Entzunaldiaren izapidea gehienez ere 3 eguneko epean egin beharko da, hasiera egintza jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Interesdunak entzunaldira agertzen ez badira ere, prozedurak aurrera jarraituko du.
- d) Aurkeztu diren alegazioak idatziz jaso behar dira.

9. artikulua. Aplikatu beharreko neurri zuzentzaileen jakinarazpena.

- a) Hartutako erabakia idazki batean (**VI. Eranskina**) bilduko du zuzendaritza taldeak, arrazoiak azalduta. Era berean, dagozkion gertakizunak eta zuzenbideko oinarriak bilduko ditu, baita erreklamaziorik edo errekurtsorik ebatsi behar izanez gero hartarako eskumena duen organoak kontuan izan beharreko alderdi guztiak bildu ere. Gutxienez, honako hauek agerraraziko dira:
 1. Gertakizunen deskribapena.
 2. Ikasleak bere jokabidea onartzeko, ukatzeko, zehazteko edo azaltzeko egin dituen alegazioak edo adierazpenak, eta, hala badagokio, gurasoek edo legezko ordezkariak egin dituztenak, baita egon daitezkeen lekukoen deklarazioak ere.
 3. Zuzendariaren iritziz ikaslearen jokabidearekiko zirkunstantzia astungarririk, aringarrik, edo ikaslea errugabetzeko inguruabarrik ba ote dagoen ala ez.
 4. Ezarriko diren neurri zuzentzaileak. Neurri honek hasierako egintzaren jakinarazpenean ezarritakoak izango dira.
 5. Neurriak aplikatzeko unea. Neurriak inoiz ez dira aplikatuko Zuzendaritza Batzordearen aurrean erreklamazioak egiteko epea amaitu aurretik.
 6. Zuzendaritza Batzordearen aurrean aipatutako erreklamazioa aurkezteko epea.
- b) Zuzendariak bere erabakia hartu beharko du entzunaldia egin eta hurrengo eskola-eguna amaitu aurretik. Zuzendariaren erabakia, hortaz, ikasleari eta, ikaslea adin txikikoa bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko die.

60. artikulua. Zuzendaritza Batzordeari erreklamazioa egitea. (VII. Eranskina)

Ikasleak edo, hala badagokio, haren gurasoek edo legezko ordezkariak eskatuz gero, Zuzendaritza Batzordeak zuzendariak hartutako erabakia berrikusi ahalko du, eta, hala badagokio, dagozkion neurriak proposatuko ditu.



BIZKARGI **Musika eta Dantza Eskola**

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

61. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen ebazpena. (VIII. Eranskina)

- a) Zuzendaritza Batzordeak, kontuan hartuta, batetik, ikasleari aplikatuko litzaizkiokeen neurri zuzentzaileen idazkia, eta, bestetik, ikaslearen erreklamazioan jasotako alegazioak edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoenak edo legezko ordezkariak, neurri horiek berretsiko ditu, erregelamendu honetan aurreikusitakoarekin bat datorrela uste badu, edo, bestela, erabaki hori berrikustea erabakiko du.
- b) Zuzendaritza Batzordeak gehienez ere **3 eguneko epean** hartu beharko du bere **erabakia**.
- c) Zuzendaritza Batzordearen erabakiaren ikaslearentzako edo, hala badagokio, haren gurasoentzako edo legezko ordezkariarentzako jakinarazpenak erabakiaren eduki osoa adierazi beharko du. Jakinarazpenean erabakiaren arrazoiak adieraziko dira, zuzendariaren aurreko erabakia berresten nahiz berrikusten den aintzat hartu gabe.

62. artikulua. Neurri zuzentzaileak aplikatzerakoan kontuan hartuko diren inguruabarrak.

- a) Zuzendariak neurri zuzentzaileak hartuko ditu ikaslearen adina eta egoera pertsonala, familiakoa eta soziala kontuan hartuta. Neurri zuzentzaile horiek, zehapen helburuaz gain, hezkuntza helburua izango dute.
- b) Inguruabar aringarriak:
 - 1. Berehala onartzea zuzentzea merezi duen jokabidea desegokia izan dela.
 - 2. Aurretik neurri zuzentzaileak jaso ez izana.
 - 3. Jendaurrean barkamena eskatzea.
 - 4. Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea.
 - 5. Hain kalte larria eragiteko asmorik izan ez duela erakustea.
- c) Inguruabar astungarriak:
 - 1. Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez egiteak honako ezaugarri hauek dituztenen aurka egiten direnean: adinez txikiak, minusbaliatuak, ahalmen fisiko txikiagokoak, Eskolara etorri berriak; edo nagusikeriaz jokatu izana adierazten duen beste edozein zirkunstantzia.
 - 2. Kaltea nahita egina izatea edo aldeztu aurretik prestatu ondoren egitea.
 - 3. Taldean jardutera bultzatu edo akuilatu izana.

63. artikulua. Prozedurak hasteko debekua, denbora igaro delako.

Eskolan neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozedurarik ez da hasiko, nahiz eta bizikidetzari kalte arinak, larriak edo oso larriak eragiten dizkieten jokabideak ezagutu, honako kasu hauetan:

- a) Bizikidetzari kalte oso larria eragiten dioten egitate edo ez egiteetatik 120 egun baino gehiago igaro direnean.
- b) Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten egitate edo ez egiteetatik 60 egun baino gehiago igaro direnean.
- c) Bizikidetzari kalte arina eragiten dioten egitate edo ez egiteetatik 20 egun baino gehiago igaro direnean.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

64. artikulua. Eskolaz kanpoko jarduera batean eskolatik kanpo egindako arau-hausteak.

Arau haustea Eskola eremutik kanpo egiteak ez du eragotziko araudi hau erabiltzea Eskolak programatutako jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak direnean.

III. TITULUA - ESKOLA KUDEATZEKO ETA EBALUATZEKO TRESNAK

I. KAPITULUA - IKASTURTEKO PLANA

65. artikulua. Ikasturteko Plana.

Eskolaren Ikasturteko Plana antolakuntza eta funtzionamendu mailan nahitaezko tresna da, bertan jasotzen baitira ikasturte bakoitzerako ezarritako helburuak eta jarduerak.

66. artikulua. Ikasturteko Planaren atalak.

Ikasturteko Planaren atalak honako hauek dira:

- a) Helburu orokorrak
- b) Organigrama
- c) Ikasturteko egutegia
- d) Formazio Plana
- e) Ikasturterako aurreikuspen ekonomikoa
- f) Eskolako erabiltzaileak informatzeko plana
- g) Ikasturterako planifikatutako ekintzak

67. artikulua. Ikasturteko Planaren onespena.

- a) Zuzendaritza Batzordeak azaroaren amaierarako onartuko du Ikasturteko Plana.
- b) Zuzendaritza Batzordeak Plana onartu ondoren, publiko egingo da eta hezkuntza komunitate osoaren eskura egongo da.

II. KAPITULUA - IKASTURTEKO MEMORIA

68. artikulua. Ikasturteko Memoria.

Eskolaren Ikasturteko Memoria, alde batetik, tresna ebaluatzailea da, Eskolan egindako jarduera adierazgarrien ebaluazioa egiten duelako eta, bestetik, gerora begirakoa ere bada, hobekuntza proposamenak egiten dituelako.

69. artikulua. Ikasturteko Memoriaren atalak.

Ikasturteko Memoriaren atalak honako hauek dira:

- a) Helburuen lorpen maila
- b) Ikasleen emaitza akademikoen balorazioa
- c) Formazio Plana
- d) Eskolaren erabiltzaileak informatzeko plana
- e) Ikasturtean burututako ekintzen balorazioa



BIZKARGI Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

- f) Ikasturteko balantze ekonomikoa eta hurrengo ikasturterako aurreikuspena
- g) Hurrengo ikasturterako hobekuntza proposamenak

70. artikulua. Ikasturteko Memoriaren onespena.

- a) Zuzendaritza Batzordeak urriaren 31rako gainbegiratu du Ikasturteko Memoria, urteko ohiko bilkuran Batzar Nagusiak onar dezan.
- b) Ikasturteko Memoria hezkuntza komunitate osoaren eskura egongo da.

IV. TITULUA - ESKOLAKO INSTALAZIOEN ETA MATERIALAREN ERABILERA

71. artikulua. Instalazioen eta materialaren erabilera.

- a) Eskolako instalazioak eta materiala eskola egunetan soilik, eta 10:00etatik 22:00etara bitartean erabili ahalko dira.
- b) Egun eta ordu horietatik kanpo, instalazioak eta materiala kasu hauetan bakarrik erabili ahal izango dira:
 - 1. Eskolak berak antolatutako ekintzetarako.
 - 2. Zuzendaritzak baimendutako kasuetan, betiere baimena eskatzen duena Eskolako irakaslea bada eta erantzukizun osoa bere gain hartzen badu.

V. TITULUA - MATRIKULATZEKO ARAUBIDEA

72. artikulua. Matrikulazioa eta ikasleen onarpena.

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolak EAEn musika eta dantza eskolak arautzen dituen 64/2024 Dekretuaren 52. artikulua betez, matrikulazio-araubide hau ezarri du:

- a) Ikasle oro eskolan matrikulatu ahal izango da bertan ematen diren irakaskuntza guztietan.
- b) Matrikula egitean, hautagaia Eskolako ikaslea izango da, eta bere gain hartuko ditu ikasle-izaeratik eratorritako eskubide eta betebeharrak guztiak. Beraz, Eskolan matrikulatzeak esan nahi du nahitaez bete behar direla Eskolaren Antolaketa eta Funtzionamendu Araudian ezarritako arauak eta Zuzendaritza Batzordeak onartutako betekizun eta erabakiak, bai eta ondorengo lege eta erregelamenduetan ezarritako beste edozein ere.
- c) Matrikula formalizatu ondoren, Eskolak ziurtzat joko du onartzen duela indarrean dagoen Araudia loteslea dela.
- d) Eskolan matrikulatzeko ezinbestekoa da kuotak ordainduta izatea.
- e) Matrikula formalizatzeko prozedura, epeak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa ikasturte bakoitzean argitaratuko dira Eskolaren webgunean, "Ikasturteko Plana" / "Matrikulazioa" eremuan.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

- a) Matrikula formalizatzean, hautagaia Eskolako ikasle bihurtzen da, eta bere gain hartzen ditu ikasle izateari dagozkion eskubide eta betebeharrak guztiak. Beraz, Eskolan matrikulatzeak berekin dakar Eskolaren Antolakuntza eta Jarduera Araudian ezarritako arauak nahitaez betetzea, bai eta Zuzendaritza Batzordeak onartutako betekizunak eta erabakiak eta ondorengo lege eta erregelamenduetan ezarritako beste edozein ere.
- c) Matrikula formalizatu ondoren, Eskolak ziurtzat joko du interesdunek badakitela eta onartzen dutela indarrean dagoen Araudia loteslea dela.
- d) Eskolan matrikulatzeko ezinbestekoa da kuotak ordainduta izatea.
- e) Eskolako ikasleek INIKA plataformaren bidez formalizatuko dute matrikula. Epeak plataforma horren, webgunearen eta iragarki taularen bidez jakinaraziko dira, matrikulazio epea hasi baino astebete lehenago.



BIZKARGI **Musika eta Dantza Eskola**

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

73. artikulua. Eskolako ikasleak.

- a) Eskolako ikasleak dira matrikulazio aldian Eskolako ikasle aktibo gisa alta emanda daudenak. Ikasleak Musika Hizkuntzako ikasketak egin nahi baditu edo musika tresna bat jotzen ikasteko behar adinako prestakuntza egiaztatzen badu, lehentasuna izango du lehen espezialitate instrumentala aukeratzeko orduan, prestakuntza hori egiaztatzen ez dutenen aurretik, betiere dagokion epean matrikulatzen bada.
- b) Aukeratutako instrumenturako plazarik ez badago, beste instrumentu bat aukeratu ahal izango da bigarren aukera gisa.
- c) Plazarik ez badago, ikaslea dagokion itxarote-zerrendan sartuko da. Baja baten ondorioz lanpostu huts bat sortzen bada, lehenik eta behin zerrenda horretara joko da, MUSIKA-HIZKUNTZAN matrikulatuta egoteagatik hutsik dagoen lanpostua betetzeko lehentasun-irizpidea kontuan hartuta.
- d) Bigarren espezialitate baterako (instrumentala eta/edo dantza) plaza eskatuz gero, eskatzailea ikasle berritzat hartuko da espezialitate horietan. Beraz, itxarote-zerrendan espezialitate horiek lehenengo espezialitatea direnentzako ikasleak badaude, azken horiei emango zaie lehentasuna plaza esleitzeko orduan.
- e) Eskolako ikasleek Aste Santuaren aurreko 2 eskola asteen barruan matrikulatu beharko dute. Epe horren barruan matrikula formalizatzen ez bada, ikasle horiek ikasle berrien aukera berberak izango dituzte, hau da, taldeak eta ordutegiak aukeratu ahal izango dituzte matrikularen hurrenkera-zenbakiaren arabera.
- f) Taldeko ikasgaien ordutegiak aldatu egiten dira ikasturte batetik bestera. Beraz, ikasleek edo familiek aukeratuko dute zein nahi duten, betiere Eskolak eskainitako ordutegiaren barruan.
- g) Taldeko irakasgaien ordutegiak iragarki-taulan argitaratuko dira matrikulazio-epea hasi baino astebete lehenago.
- h) Instrumentuen kasuan, Eskolak, aldez aurretik, hurrengo ikasturtean instrumentu bakoitzaren eskolak emango diren asteko egunak ezartzen ditu. Ordutegia behin-behinean adostuko da irakaslearekin ekainaren 30a baino lehen (egun hori barne).
- i) Onartutako ikasle guztiek Eskolak ezarritako epearen barruan matrikulatu beharko dute. Matrikula ezarritako epean egiten ez dutenek plaza galduko dute eta Eskolak dagokion itxaron-zerrendako ikasle bati esleitu dio plaza hori.

74. artikulua. Ikasle berriak.

- a) kasle berritzat hartuko da matrikulatu nahi den espezialitateko matrikulazio-aldian Eskolan ikasle aktibo gisa alta emanda ez dagoena. Ikasle hauentzako matrikula epea Aste Santuko oporren ondorengo lehen astelehenean irekiko da.



BIZKARGI **Musika eta Dantza Eskola**

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

- b) Bai ikasle berrientzat, bai beste espezialitate bat egin nahi duten Eskolako ikasleentzat, ordutegia eta espezialitatea matrikularen hurrenkera-zenbakiaren arabera esleitu da.
- c) Bigarren aukera gisa hautatutako instrumentuaren espezialitatean matrikulatzen diren ikasleak lehen aukera gisa aukeratutako espezialitateko itxarote-zerrendan geratuko dira irailaren lehen astera arte (barne). Bajak badaude, bigarren aukerako matrikula lehen aukerako matrikula bihurtu ahal izango da. Nolanahi ere, itxaron-zerrendaren ordenari jarraituko zaio.
- d) Matrikulazio-aldia amaitu ondoren, bajarik izanez gero, plaza huts guztiak, ahal den guztietan, dagokion itxarote-zerrendarekin beteko dira. Musika Hizkuntzaren kasuan, ikasturteko lehen hiruhilekoan soilik onartuko dira alta berriak.
- e) Edozein arrazoiengatik gatazkarik sortzen bada (ordutegia, irakaslea, etab.), matrikularen hurrenkera-zenbakia izango da ikasleen lehentasuna zehaztuko duen irizpidea.

75. artikulua. Kuoten zenbatekoa eguneratzeko erabakia.

- a) Matrikularen zenbatekoa eta hileko kuotak eguneratzeko erabakia Zuzendaritza Batzordeari dagokio, eta hura matrikulazio-prozesua hasi baino 15 egun lehenago bilduko da, beranduenez, dagokion erabakia hartzeko.

76. artikulua. Matrikularen kuotak eta hileko kuotak.

- a) Behin inskripzioa eginda, ez da matrikula-kuota itzultzeko eskubiderik izango.
- b) Familia ugarietako kideek % 50eko murrizketa izango dute matrikularen/matrikulen kuota/kuotetan.
- c) Eskolan familia-unitate bereko 3 edo 4 kide ikasten ari badira, murrizketa Eskolan matrikulatutako hurrenkeraren arabera aplikatuko da, eta ez ikasturtean matrikulatutako hurrenkeraren arabera.
 - 1. 3 kide badira, % 50eko murrizketa aplikatuko zaio eskolan matrikulatu den hirugarren kidearen kuota osoari.
 - 2. 4 kide badira, %100eko murrizketa aplikatuko zaio eskolan matrikulatu den laugarren kidearen kuota osoari.

VI. TITULUA - ESKOLAN BAJA EMATEA

77. artikulua. Baja emateko prozedura.

- a) Baja emateko, baja eskatzeko inprimakia bete behar da. Inprimakia Idazkaritzan eskatuko da edo webgunetik deskargatuko da eta, bete ondoren, Idazkaritzan utziko da edo posta elektronikoz bidaliko da Eskolara.
- b) Baja-eskaera ikasleak berak (adin nagusikoa bada) edo aitak, amak edo legezko tutoreak (adingabea bada) aurkeztu beharko dute.
- c) Baja ematea eskatuz gero, baja-eskaera aurkeztu deneko epea amaitu arteko kuotak kobratuko dira



BIZKARGI **Musika eta Dantza Eskola**

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

78. artikulua. Baja emateko epeak.

Behin ikasturtea hasita, baja eman nahi izanez gero, nahitaez, baldintza hauetan egin beharko da:

- a) 1.epea: irailetik abendura bitartean jakinarazitako baja (biak barne) abendura arte ordainduko dira kuotak (biak barne).
- b) 2.epea: urtarrila eta martxoa bitartean jakinarazitako baja (biak barne) martxora arteko kuotak ordainduko dira (biak barne)
- c) 3.epea: apirilaren 1etik aurrera jakinarazitako baja, ekainera arteko kuotak ordainduko dira.

VII. TITULUA - ERREKLAMAZIOAK

I. KAPITULUA - KALIFIKAZIOEN ERREKLAMAZIOA

79. artikulua. Ebaluazio partzialeko kalifikazioei erreklamazioak egitea.

- a) Ikasleek ebaluazio aldi bakoitzari dagozkion ahozko erreklamazioak egin ahal izango dituzte, eta dagozkion irakasleak erantzun beharko ditu erreklamazio guztiak.
- b) Irakasleak erreklamazioa ezesten badu, ezin izango da inolako erreklamaziorik egin ebaluazioa partziala delako, eta ez da aldatuko irakasleak emandako kalifikazioa. Kasu horretan, irakasleak eskolako zuzendariari horren berri eman beharko dio eta, amaierako ebaluazioaren kalifikazioaren aurkako erreklamaziorik egonez gero, ikasleak egindako erreklamazioa eta irakaslearen ebazpena hartuko dira kontuan azken erabakia hartzerakoan.

80. artikulua. Azken ebaluazioko kalifikazioei erreklamazioak egitea.

- a) Ikasleek azken ebaluazioko kalifikaziori buruzko ahozko erreklamazioak egin ahal izango dituzte, eta dagozkion irakasleak erantzun beharko ditu erreklamazio guztiak.
- b) Ikasleek erreklamazioa ezesten den kasuetan departamentuaren esku-hartzea eska dezakete beren erreklamazioa (**IX. Eranskina**) idatziz aurkeztuz, ahozko erreklamazioa ezeztatu denetik 48 orduko epean.
- c) Departamentuari zuzendutako idatzian erreklamazio egileak honako alderdi hauek zehaztu behar ditu argi eta garbi:
 1. Irakasleak jarri dion eta bere iritziz zuzena ez den kalifikazioa.
 2. Ikaslearen ustez zilegi litzatekeen kalifikazioa.
 3. Ikasleak erreklamazioa egiteko dituen arrazoiak.
- d) Departamentuak 2 eguneko epean hartu beharko du erabakia, erreklamazioa idatziz egiten den egunetik zenbatzen hasita.
- e) Departamentuak egiaztatuko azterketa programazioarekin bat datorrela eta departamentuan adostutako irizpideak behar bezala ezarri direla, eta ebazpena idatziz jakinaraziko dio ikasle erreklamatzailerari.

81. artikulua. Kalifikazioak justifikatzen dituzten agiriak gordetzea.

Irakasleek Eskolan gordeko dituzte agiri guztiak ikasturte osoan eta, gutxienez, ikasturteko azken ebaluazioa egin ondoren erreklamazioak egiteko dagoen epea amaitu eta hiru hilabete bitartean.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

II. KAPITULUA - ERREKLAMAZIOA ZUZENDARITZA BATZORDEARI

82. artikulua. Zuzendaritza Batzordeari erreklamazioak egiteko prozedura.

- a) Erreklamazioa idatziz (**VII. Eranskina**) aurkeztu beharko da nahitaez. Erreklamazio-inprimakia idazkaritzan eskatuko da edo web gunetik deskargatuko da, eta, bete ondoren, idazkaritzan utziko da edo posta elektronikoko bidez bidaliko da Eskolara.
- b) Zuzendaritza Batzordeak, kasua ebatzi ondoren, ebazpena (**VIII. Eranskina**) interesdunari helaraziko dio, erreklamazioa aurkeztu eta gehienez 15 egun balioduneko epean.
- c) Interesdunak 7 egun balioduneko epea izango du, jakinarazpena bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita, Zuzendaritza Batzordeak ebaztitakoaren aurka idatziz errekurtoa aurkezteko.

VIII. TITULUA - ESKOLAKO TRAMITEAK ETA KOMUNIKAZIO-KANALAK

I. KAPITULUA - INIKA PLATAFORMA

83. artikulua. INIKA plataformaren funtzioak.

Eskolako tramite administratiboak eta akademikoak INIKA plataformaren bidez egingo dira, eta, beraz, nahitaezkoa izango da bertara sartzea Eskolak eskatzen dituen tramiteak egiteko, jakinarazpenak jasotzeko eta irakasleekin komunikatzeko.

II. KAPITULUA - IDAZKARITZA

84. artikulua. Idazkaritzako zerbitzua.

Eskolako erabiltzaileek Eskolako Idazkaritzara jo beharko dute, besteak beste, edozein zalantza argitzeko eta administrazio-izapideak egiteko, hala nola baja emateko, datu pertsonalak eguneratzeko, erreklamazio bat aurkezteko, etab.

85. artikulua. Idazkaritzako ordutegia

Eskolako Idazkaritza zabalik egongo da eskola egunetan, goizez eta arratsaldez. Jendaurreko ordutegia Eskolaren webgunean argitaratuta egongo da.

IX. TITULUA - AZKEN XEDAPENAK

86. artikulua. Araudi honetan jasotakoarekin kontraesanean dauden edo kontra egiten dioten maila bereko edo txikiagoko arau guztiak indargabetuko dira.

87. artikulua. Hezkuntza Komunitate osoak bete behar du Araudi honetan xedatutakoa.

88. artikulua. Musika eta Dantza Eskolako Zuzendaritza Taldeak eta Zuzendaritza Batzordeak araudiaren aplikazioa zainduko dute



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

89. artikulua. Erregelamendu hau aldatu, zabaldu edo berrikusi ahal izango da, elkartekideetako edozeinek hala eskatzen badu. Aldaketa-proposamenak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko zaizkio, onar ditzan.

X. TITULUA - ERANSKINAK



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

I. ERANSKINA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

EKINTZA (IRTEERA)	
Antolatzailea	
Non	
Data eta ordutegia	
Kostua (dagokionean)	

Ekintzari buruzko informazio laburra:



BIZKARGI Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

III. ERANSKINA

PROZEDURA ZUZENTZAILEA BERTAN BEHERA UZTEA, JOKABIDEAK ZUZENTZEKO ORDEZKO BIDEAK APLIKATU DIRELAKO

PROZEDURA ZUZENTZAILEA BERTAN BEHERA UTZI DELA JAKINARAZTEN DU

Eskolako zuzendariak,ikasleari
irekitako prozedura zuzentzailearen barruan, gaurko egunez oraindik ebazpenik eman ez eta jokabidea
zuzentzeko ordezkot neurriak aplikatu direnez; hain zuzen ere (deskribatu):

.....
.....

Jakinarazten dizut bertan behera utzi dela prozedura zuzentzailea, Eskolako Araudi honen 53. artikuluan
zehazten denaren arabera.

AZKOITIAN, 2.....koaren(e)an.

ZUZENDARIA

Izpta.:

IKASLEA EDO BERE LEGEZKO ORDEZKARIAK:

Izpta.:

*Oharra: Jakinarazpen hau helaraziko zaie interesatuei (guraso, legezko tutore edo, adinduna bada,
ikasleari).*



BIZKARGI Musika eta Dantza Eskola

AJA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

IV. ERANSKINA

BIZIKIDETZARAKO KALTE LARRIAK/OSO LARRIAK (*kendu ez dagokiona*) ERAGITEN DITUZTEN
JOKABIDEENGATIK PROZEDURA ZUZENTZAILEA HASI IZANA JAKINARAZTEA.

IKASLEA	
DATA	
ZUZENDARIA	

Guraso agurgarriok:

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako zuzendariak, beharrezko informazioa jaso ondoren, **erabaki du**:

BAT.- Bizikidetzarako kalte larriak/oso larriak (*kendu ez dagokiona*) eragiten dituzten jokabideengatik **prozedura zuzentzailea** hastea.

Bizikidetzari kalte larria/oso larria (*kendu ez dagokiona*) **egiten dioten jokabideak zuzentzeko**, ustez honako hauek egin dituelako:

(Leporatzen zaizkion ekintza, portaera eta jokabideen deskripzio zehatza: eguna, ordua, lekua. Idazkiak bere oinarrian bat etorri behar du Eskolako Antolakuntza eta Jarduera Araudian jasotako jokabide desegokiekin).

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko AJAren II KAPITULUKO 3. ATALAK diotenaren ildotik,

Aipatutako jokabidea AJAren **48./49. artikuluko** (*kendu ez dagokiona*) paragrafoan dator (aipatu), eta **50. artikuluko** paragrafoan/paragrafoetan dator/datozen (aipatu), neurriaz/neurriez gain, **51. artikuloko** paragrafoan/paragrafoetan (aipatu) zehaztutako neurrien bidez zuzendu ahal izango da.

Prozedura hau bertan behera utz liteke jokabideak zuzentzeko **neurri alternatiboak** aplikatuz gero, Araudi honen II. Kapituloko, III. Tituluko, 5. Ataleko **53. eta 54. artikuluek** zehazten duen moduan. Horien artean daude:

- Ikasleak bere gogoz onartzea heziketa-neurriak.
- Adiskidetzea.
- Kalteak konpontzea.
- Familiaren barruan zuzentzea.

BI.- Entzunaldirako deitzea, ikaslearekin batera (egoki bada), 2.....koaren (e)rako,e(t)an, eta dena delakoa alegatu ahal izango da, eta egoki iruditutako bideak proposatu ahal izango dira.

Inor azalduko ez balitz, horren akta jaso eta prozedurarekin jarraituko da, araudiak agintzen duen moduan.

AZKOITIAN, 2.....koaren(e)an

ZUZENDARIA:

IZPTA.:

JAKINARAZPENAREN HARTZAILEA:

JASO DEN EGUNA:

OHARRA: Ikasleak eranskin hau, sinatu ondoren, 24 orduko epean entregatu behar du ESKOLAN.



BIZKARGI Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

V. ERANSKINA

ENTZUNALDI IZAPIDEAREN AKTA

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolan, 2.....koaren(e)an,e(t)an, bertan daudelarik:

Agertu d(ir)a:

ZUZENDARIA:

IKASLEA:

LEGEZKO ORDEZKARIAK:

prozeduraren ikustaldia eta entzunaldia egiteko, **Araudi hoen 59. artikulua** xedatzen duenaren arabera eta gertaerak argitze aldera erakusten dira frogazko elementu hauek (egin zerrenda):

1.-

Alegazio hauek ere egin dira:

1.-

Eta dei egiten zaie **Ebazpen Proposamenaren ikustaldirako** hilaren(e)(a)n,e(t)an.

Ekitaldi hau egin dela ziurtatuz, sinatzen dute:

ZUZENDARIA	IKASLEA	GURASOA LEGEZKO TUTOREA
Izpta.:	Izpta.:	Izpta.:

Ez dira entzunaldira agertu ez ikaslea ez bere legeko ordezkariak, prozedura honetako zuzendariak deitu zituenak Eskola honetara etortzeko 2.....koaren(e)rako,e(t)an, eta, beraz, araudiak aurreikusten duena jarraituko da.

AZKOITIAN, 2.....koaren(e)an

ZUZENDARIA:

Izpta.:



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

VI. ERANSKINA

APLIKATZEKO NEURRI ZUZENTZAILEAREN JAKINARAZPENA

Eskola honetan **ohiko prozedura** egin ondoren, 2.....koaren(e)an
.....(e)n gertatu zenagatik, eta bertan ikasleak parte hartu zuelarik,

ZUZENDARIA:

BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLAKO zuzendariak, jakinarazten dizu:

- 1.- Frogatutako gertaerak. (*zehaztu frogatutzat emandako gertaerak eta horiek egiaztatzeko frogak*).
- 2.- Jokabide okerr(ar)en kalifikazioa, Araudi honen **48.artikuluarn edo 49. artikulua**ren arabera adierazi.
- 3.- Ikaslearen, gurasoen edo legezko ordezkarien alegazioak.
- 4.- Neurri zuzentzaileak aplikatzeko proportzionaltasuna: inguruabar aringarriak eta astungarriak (**Araudi honen 63. artikulua**)
- 5.- Neurri zuzentzaileak eta aplikatzeko unea.
- 6.- **Araudi honen 61. artikulua** xedatzen duenaren arabera, **3 eguneko epean** erreklamazioa egin daiteke, eta **arrazoitutako idatzi baten bidez** eska daiteke Eskolako Zuzendaritza Batzordeak berrius dezan.

AZKOITIAN, 2.....koaren(e)an

ZUZENDARIA:

Izpta.:

JASO DUT JAKINARAZPENA: (Aitaren, amaren edo legezko tutorearen izenpea)

HARTZAILEA:

JASO DEN EGUNA:



BIZKARGI Musika eta Dantza Eskola

AJA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.

VII. ERANSKINA

ERREKLAMAZIOA BIZKARGI ZUZENDARITZA BATZORDEARI	
IKASLEAREN DATUAK	
IZEN-ABIZENAK	
NAN	
EMAILA	
ZERGATIEN AZALPENA (Azaldu laburki eta argi erreklamazioaren arrazoia)	
ESKATZEN DU: (Labur eta argi adierazi eskatzen dena)	
HALA BADAGOKIO, AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA (Zehaztu, dagokionean, erreklamazioari erantsiko zaion dokumentazioa)	
IZPTA. AZKOITIAN 2..... ko aren(e)an	
<i>Gogorarazten dizugu zure datu pertsonalak Bizkargi Musika eta Dantza Eskolaren titulartasuneko fitxategi batean sartuta daudela. Fitxategi horren helburua datu-baseak eguneratzea da, ikastetxearen kudeaketa akademikoaren eta administrazioaren barruan. Halaber, jakinarazten dizugu datuak ez zaizkiela hirugarrenei lagako, lege ezarritako kasuetan edo adierazitako helburuak betetzeko beharrezkoak diren kasuetan izan ezik.</i> <i>Lege horretan xedatutakoaren arabera, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta horien aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu.</i> <i>Horretarako, eskaera bat bidali beharko duzu idatziz, zure NANaren fotokopiarekin batera, ikastetxeko idazkaritzara (Bizkargi Musika eta Dantza Eskola, Aita Madinabeitia, z/g. 20720, Azkoitia).</i>	



BIZKARGI Musika eta Dantza Eskola

AJA

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

VIII. ERANSKINA

BIZKARGI ZUZENDARITZA BATZORDEAREN EBAZPENA

APLIKATUTAKO NEURRI ZUZENTZAILEA BERRIKUSTEKO ESKABIDEARI BURUZKOA

Bizkargi Zuzendaritza Batzorde honi berrikuspen-eskabidea egin dionez (dagokionak):

.....jaunak/andreak mailako ikaslea den
.....(r)en (*aitek, amak, tutoreak*),
ikasle horri jokabideak zuzentzeko prozedura bat ireki zaionez, Araudi honen 62. artikulua
xedatzen duenaren bidetik, kontsiderazio hauek egin ditu:

- 1.-
- 2.-

Horien aurrean, Zuzendaritza Batzorde honek hau proposatu du: [Zehaztu hauen artean:
Erreklamazioa ez onartzea, jokabidea zuzentzeko neurria egokia delakoan / Neurri zuzentzailea
berrikustea, arrazoi hauengatik]:

- 1.-
- 2.-

(Hala badagokio) Era horretan, neurri zuzentzailea aldatu eta honela geratu da:

.....
.....

AZKOITIAN 2..... ko aren(e)an

PRESIDENTEA:

IDAZKARIA:

Izpta.:

Izpta.

*Oharra: Jakinarazpen hau helaraziko zaie interesatuei (guraso, legezko tutore edo, adinduna
bada, ikasleari) ebazpena eman orduko.*

